


MÜTILOARRAK ELKAR-ZAINTZEN




Datozen erronkei elkarrekin aurre-egiteko tailerrak




EUSKO
IKASKUNTZA




PROZESUAREN EGITARAUA







TESTUINGURUA ETA JOERAK



*Herri txikiak,
erresilientzia-gune*



Agertoki-beltza

Agertoki-arroxa

**Narratiba
konpartitua**

Nolako Mutiloa nahi dugu?



Gaur, 2053ko azaroaren 4an, Mutiloako herritarrak zera adierazu nahi dugu:



Guregana etortzen zareten guztiak...

Ongi etorriak zarete Txerri-azokara, nahiz eta kolektibo askok gure tradizioarekin bat ez egin; errespetoa eskatzen dizuegu guk errespetatzen zaituztegun bezalaxe, gure herria dagoen bezala mantentze aldera; gure tradizio, kultura eta egiteko erak erakusteko prest gaude eta zuenak ere ikasteko asmoa dugu elkar-aberastuz.

Herri baten parte izateko nahiarekin gonbidatzen zaituztegu komunitate izaera sustatzeko; [eta herri hau denaz eta dagoenaz goza dezatela, aldatzen saiatu gabe, errespetatuz eta zainduz.

Inguruko isiltasuna eta soinuak entzun ditzatela, haien esentzia bakar, lasai eta osasungarria arnas dezatela.

Bertako biztanleak ezagutzea gomendatzen dizuegu ere, beraiek baitira balio nagusia. [eta jakin dezazuen, Herria dagoen bezala egoteko lan asko egin dela aurretik eta horrela mantentzeak merezi duela; datozenen hobekuntzarako ekarpenak eta ametsak ongi-etorriak izango direla. Azken finean, denon artean eta elkarrekin egiten dugulako herria.





AURREKO SAIOAN...




Aurreiritziak:
esperientzia eta ezagutzaren aurreko iritziak

Ikasketa esperientzialak:
Bizitzan zehar ikasitakoak

Talde-gaitasunak:
Bakoitzaren esperientziatik ekarpenak



Florentino Goikoetxea eta Kattalin Agirre



IBAIA PASATZEA

Helburua

Baliabideak


Plangintza

Lidergotza

Talde-lana

Lan-taldea





Zerbitzu eta azpiegiturak



Onurak eta eragozpenak


Errotzearen garrantzia



Identitatea




KOMUNITATEA



PERTSONAK ETA GIZARTE-MAPAK

Gizarte-mapak

**Pertsonen profila identifikatzea
gizarte-taldeen profila baino lehen**




Teknika erraza da, eta, horren bidez, pertsonengan pentsatzen dugu, taldeetan baino. Arazoak identifikatzeko eta konponbideak diseinatzeko, errazagoa da gure erabiltzaileei, jarrerei, pentsamenduei, ideiei eta abarri izena jartzea.

Prozesu honetarako, "Persona" diseinu-teknika erabiltzen dugu.

PERTSONAK ETA GIZARTE-MAPAK

Persona (teknika)



Ebidentzia psikologiko batek esaten digu enpatia garatzen dugula pertsona espezifikoekin (konkretuekin) gizarte-taldeekin baino (abstraktuarekin).

Sentiberagoak gara tragedia pertsonal batekiko gizarte-taldeen estatistikekiko baino. Horregatik, talde bat mugiarazteko, kasuak, pertsona zehatzak eta gizarte-arazo baten ondorioei buruzko testigantzak kontatzen dira, eragin-estatistikak baino lehen.

Teknikak profil pertsonaletatik abiatuta mapa sozial bat egiteko aukera ematen digu. Baita ere gure onuradunen jokabideak zehazteko proiektu, ekimen edo komunitate baten kasuan.

Onuradunak diseinatzeko, beharrezkoa da gure erabiltzaileekiko enpatia-eremu bat garatzea.



PERTSONAK ETA GIZARTE-MAPAK



Izena: Miren

Adina: 72

Generoa: Emakumea

Jatorria: Azpeitiarra (duela 48 urte Mutiloara ezkontuta)

Famili egoera: Senarra (Joxe), 75 urte, alkoholikoa. 4 seme-alaba

Seme zaharrena: Mikel, Donostian bizi da (harreman gutxi)

Xabier eta Jone, Cadiz-en bizi dira

Seme gazteena: Martin (esklerosi anizkoitza du, gurpildun aulkian)

Egunero egiten dituenak

Etxeko lanak

Senarraz eta semeaz arduratu

Etxeko baratza

Bizilagunarekin, Juanitarekin,

harremana dauka

Arazoak: osasuna, ekonomia, etxebizitza....

Tentsioa eta ansiedadea

Bizkarra gaizki dauka

Etxebizitza jabegoan baina zaharra

eta egokitu gabekoa

Pentsio eskaxa (bion artean ez dira

1.600€tara iristen)

Seme-alabei eta herritarrei

errealidadea izkututzen die

(harrokeria)

Ez da mugikorrarekin moldatzen

Helburuak edota nahiak:

Etxebizitza egokitzea

Atsedeen hartzea

Semearekin laguntza gehiago

(eguneko zentrora doa)

Herrikoekin harreman gehiago


Azpeitiara noizean behin joan

ahal izatea (bakarrik)


Senarra Alcoholicos Anonimos-

era joatea

AURREKO SAIOETAN...



Nolako Mutiloa nahi dugu?




Agertoki beltza, arrosa eta narratiba konpartitua

Aurreiritziak:
esperientzia eta ezaqutzaren aurreko iritziak



Ikasketa esperientzialak:
Bizitzan zehar ikasitakoak



Talde-gaitasunak:
Bakoitzaren esperientziatik ekarpenak



- Sakrifizioa
- Plangintza
- Autonomia
- Autokritika
- Ekintzaitza
- Jolasteko gaitasuna
- Jateko gaitasuna
- Pazientzia
- Entzute aktiboa
- Harremantzeko gaitasuna


Errotzearen garrantzia



- Helburua
- Baliabideak
- Plangintza
- Lidergotza
- Talde-lana
- Lan-taldea

Ibaia pasatzea

Gizarte-mapak eta Persona




Informazioaren interpretazioa



- Bizkarra bizkarrarekin
- Batek marraztu besteak azaltzen diona
- Azalpenak: formak, tamainak, kokapena

Emaitza?

- Gehiago eta hobeto entzun behar dugu
- Batzuetan, xehetasunetan galtzen gara funtsezkoa kontatu gabe
- Hartzaileak, igorlearen narratiba bere irudi propioekin osatzen ditu
- GOGORATU! Bi belarri, bi begi eta aho bakarra...



"AKUPUNTURA SOZIALA"




Juanita

Pertsona gakoak
Mirenen egoera
arintzen hasteko



Martin





IDEIEN AZOKA

IMSERSOko bidaia



**Baserriko produktuen
bazkaria**



Eskulanen tailerrak



**Etxe moldaketa
auzolanean**



Etxe moldaketa auzolanean



Gakoak: Martin eta Juanita

Onurak: materialak eta sozialak

Lanak bukatzerakoan, aitzakia bazkaria edo eskulanetara joateko

Ez dira etxetik mugitu behar, ez eta semeaz, senarraz preokupatu beharrik

Baserriko produktuen bazkaria



Gakoak: Martin eta Juanita

Onurak: sozialak (sarea)

Baserritik gertu, bertako produktuekin:

Juanitak oilaskoak, Mirenek letxugak eta tomateak

Eskulanen tailerrak



Gakoak: Juanita

Onurak: sozialak (sarea)

Astean ordubetez eguneroko kezkak ahaztu (edo konpartitu), lagunak egin, sarea sortu)

Habilidade berriak landu (autoestimua)

IMSERSOko bidaiak



Gakoak: Juanita

Onurak: sozialak (sarea)

Astebeteko oporrak Errioxan Juanitaren bi lagunekin batera

Semea, zaintza berezien zentrura.

Joxe, familikoen kontura



ONDORIOAK

- Udalerriaren tamaina kontuan hartuta, lantaldean 9 pertsona parte hartzea lortu izana oso arrakastatsua iruditzen zaigu. Gaiak herrian piztu duen interesaren seinaletzak hartzen dugu hori.
- Taldearen osakerari dagokionez, emakumeak nabarmentzen dira gizonen gainetik (7 eta 2), eta batez besteko adina 47 urtekoa da. Tailerrak nagusiki euskaraz egin dira.
- Ondorio sakonak ateratzeko astirik izan ez badugu ere, nabari agertzen da Mutiloa bezalako herri txiki baten izaera eta egoera guztiz ezberdina dela. Erronkak ere, nahiz eta batzuk komunak izan, berezitasun propioak dituztela aurreratu dezakegu.
- Parte-hartzaileek oso positibotzat jo dute programaren garapena. Aitortu dutenez, hasieran gehienak eszeptikoak ziren arren, tailerrek gizarte-komunitate indartsuak sortzeko beharrari buruzko beste ikuspegi bat izaten lagundu diete, baita beste bizilagun batzuk hobeto ezaqutzen ere.
- Gehienek azpimarratu zuten lau jardunaldietan lortutako konfiantza-giroak eta ingurune seguruak komunikazioa eta ideien fluxua erraztu zutela.
- Nabarmendu beharreko alderdietako bat da herritarrek oso asetasun maila altua dutela beren bizilekuarekin, nahiz eta zerbitzu edo azpiegiturarik nahiko ez izan. Bizi-kalitate lasaia eta ingurunea lehenesten dira beste alderdi batzuen gainetik. Baina, aldi berean, nolabaiteko kezka dago nerabeak eta gazteak, ikasketak egitera herritik irtetean, askotan ez direlako itzultzen, sozialki hitz eginez. Horrek asko zailtzen du errotzea, erreleboa eta belaunaldien arteko elkarrekintza, familiarik haratago.
- Gizarte-sarea ahultzen ari denez, ezinbestekoa da bizilagunek elkar zaintzeko komunitateak sortzea.
- Komunitatearen ahultasunak eta errelebo falta gizarte-ekimenetan, bigarren fase baten beharra aurreratzen dute. Parte-hartzaileek ere nahi hori agertu dute eta datorren urtean Komunitatearen indartzeari ekingo genioke erakundeek ondo baderitzone.





PROZESUA LABURBILDUZ...



ZER: Helburua: Mutiloarrak **elkar-zaintzeko komunitatea** sortu, handitu edota sendotzea



ZERGATIK: Denok dugulako komunitatearen **beharra** (edo izango dugu).



NORK: **mutiloarrak** (euren gaitasun guztiekin eta elkarlanean)





NOLA: “**antena**”, entzute aktiboa, ikusten ez dena begiratzen, laguntza eskainiz eta eskatuz...



NONDIK HASI? Trebakuntzarekin jarraitu (2024), Komunitatea osatu, rola bereiztu, esperientziak diseinatu eta aurrera eraman...







Eskerrik asko!!!

Eta laster arte...

Joseba



Koro

